

2022

4. hiruhilekoa

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
Dirección de Economía y Planificación

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	14
Prezioak, soldatak eta kostuak	21
Arlo publikoa	25
Arlo finantzarioa	27
Aurreikuspenak	33

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	7
Enpleguaren bilakaera	12
Etxebizitzen hipoteken bilakaera	31

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak	9
Jardueraren adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioen helmuga	17
Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea	23
Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak	24
Lan kostuak	25
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-azaroa)	26

Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	28
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	29
Kreditu eta gordailuak.....	32
Ekonomia aurreikuspenak.....	34
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2022ko azaroa)	36

LABURPENA

Munduko ekonomiak ziurgabetasun handiko une batean murgilduta jarraitzen du, Ukrainako gerrak, energiaren merkatuko tentsioek, inflazio altuak, garatutako eremu ekonomiko nagusietako moneta politikaren norabide aldaketak eta Txinako Covid zero politikak baldintzatuta. Horrek guztiak eragile ekonomikoen igurikimenei eragiten dien ezkortasuna dakar. Hala eta guztiz ere, EAEko ekonomiarako eta ingurunerako argitaratu diren datuak orain arte positiboak izan dira. Horrela, hirugarren hiruhilekoan, Euskadi %3,8 hazi zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoetako bano balio txikiagoa, baina oso altua izaten jarraitzen duena, bai azken hamarkadako ekonomiaren erritmoarekin alderatuz gero, bai inguruko herrialdeekin alderatuz gero. Azken horri dagokionez, gogoratu behar da Europar Batasuna %2,5 hazi zela, euroaren eremua %2,3, Alemania %1,3, Frantzia %1,0 eta Espainia, azkenik, %4,4.

Eskaintzaren ikuspegitik egindako analisiak adierazten du EAEko ekonomiaren moteltzea bi sektore nagusietan kontzentratzen dela, eta, aitzitik, eraikuntzak eta lehen sektoreak aurreko datuak hobetu zituztela. Lehen sektorearen kasuan, hazkunde erritmoaren gorabeherak ohikoak izaten dira, eguraldiaren mende egoten delako. Eraikuntzari dagokionez, bere balio erantsia %2,5 handitu zen, hau da, aurreko hiruhilekoan bano puntu bat gehiago. Sektore hori geldiarazten zuten arazoetako batzuk, bereziki lehengaien prezioen igoera handia, konpontzen hasi dira, eta horrek eraikuntzaren jardueraren itzulera erraztu du, bai eraikinen atalean bai obra zibilean.

Industriak nabarmen moteldu zuen bere hazkunde erritmo aparta, eta hirugarren hiruhilekoan %3,8ko hazkunde tasa eskuratu zuen, ekonomia osoaren antzeko emaitza baita. Ukrainako gatazka armatuak nazioarteko merkataritzari eragin dion nahasmenduak kalte egiten dio sektore horri, lehiari irekiena delako. Hala ere, lortutako emaitza oso esanguratsua da oraindik. Aipatzekoa da moteltzea handiagoa izan dela manufakturen atalean, beren aldakuntza tasa %2,8raino leuntzen baitute; aldiz, energiaren balio erantsiaren hazkundera zifra hori bano altuagoa izan zen.

Zerbitzuek aurreko hiruhilekoan azaldutakoaren antzeko bilakaera eskaini zuten: balio erantsiaren hazkundera (%4,3) batez bestekoa bano handiagoa izan zen, eta merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldean portaera oso nabarmena izan zen (%9,9). Hala ere, atal horrek ez du erabat berreskuratu pandemiaren aurretik izan zuen jarduera maila. Administrazioari lotutako jardueren multzoak %1,2ko hazkundera lortu zuen, aurreko hiruhilekoaren antzekoa; gainerako zerbitzuak ekonomiaren batez bestekoaren azpitik mantendu ziren eta urte arteko %2,6 hazi ziren.

Eskariaren ikuspegitik, nabarmendu behar da EAEko BPGaren moteltzea kanpoko eskariaren ekarpen txikiagoagatik bakarrik gertatu dela, eta barne eskaria, berriz, aurreko hiruhilekoko erritmo berean hazi zela (%2,4). Izan ere, munduko ekonomian bizi den igurikimenean okertzeak eta zenbait produkturen protekzionismora itzultzeak apaldu egin du nazioarteko merkataritza, nahiz eta salmentak erritmo onean hazten jarraitzen duen. EAEn kasuan, ondasun eta zerbitzuen esportazioak, balio errealetan neurtuta, %9,2 handitu ziren, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 4,5 puntu gutxiago. Inportazio errealak ere (%5,6) apaldu egin ziren, baina neurri txikiagoan.

Lehenago ere adierazi den bezala, barne eskariak ez zuen aldatu aurreko hiruhilekoko joera hedakorra. Portaera hori agregatuaren bi osagai nagusietan hautematen da, urte arteko tasak oso gutxi aldatu baitziren. Horrela, kapital eraketa gordina %4,9 hazi zen, aurreko bi aldietan erregistratutakoaren tasatik oso hurbil. Bestalde, azken kontsumoko gastua %1,7 gehitu zen, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago. Alde batetik, administrazio publikoen kontsumoak nabarmen murriztu zuen beherakada: bigarren hiruhilekoko -%3,1etik hirugarreneko -%0,7ra igaro zen. Bestetik, familien kontsumoa %2,4ra apaldu zen, inflazio handiaren eta erosteko ahalmenaren galeraren ondorioz.

Inflazioa da gaur egungo koitunturaren arazo nagusietako bat, bai Euskadin, bai ingurune ekonomikoan. Kontsumoko prezioak %10 baino gehiago garestitu ziren udako hilabeteetan, baina, ondoren, erritmoa moteldu egin da, azaroko KPIa %6,5ean kokatu arte. Inflazioaren zuzenketa hori, batez ere, elektrizitatearen merkatzeak eragin du, baina elikagaiek ia ez dute ezer moteldu beren hazkunde tasak.


Ekonomia arriskuan jartzen duten zailtasun guztiak gorabehera, enpleguak aurreko aldietako goranzko bideari jarraitu dio, baina erritmo apalxeagoan. Lanaldi osoko lanpostuei dagokienez, hirugarren hiruhilekoko hazkundera %2,0 izan zen, eta 2008an galdu zen milioi bat enpleguko zifra berreskuratu zen. Gainera, urriko eta azaroko Gizarte Segurantzako afiliazioko datuek iradokitzen dute erritmo horrek aldaketa gutxirekin jarraituko duela aurtengo laugarren hiruhilekoan.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak hazkunde erritmo nabarmenari jarraipena eman zion. Eskaintza hobetzearen eta eskaria ahultzearen ondorioz, hornidura kate globalen gaineko presioa erlaxatu egin zen, eta zerbitzuen sektoreak udako kanpaina bikaina bizi zuen. Arrazoi horiei esker, munduko ekonomiak, oraingoz, uko egin dio beste krisi batean murgiltzeari, erakunde batzuen iragarpenak gezurtatuz. Hala eta guztiz ere, etorkizuna zalantzarik ez da oraindik. Barne produktu gordinaren tonua ona izan arren, munduko inflazioaren gorakada areagotu egin da zenbait hamarkadatan ezezagunak ziren tasak jasoz, eta horrek eragin du banku zentralen erantzun sendoa. Horren ondorioz, finantzaziorako baldintzak tenkatu dira. Aurreko guztiari gehitu behar zaio Europako energia horniduraren segurtasunari buruz hedatu den ziurgabetasuna, eta baita tentsio geopolitiko globalak nabarmen igotzeko aukera ere.

Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina



Iturria: ELGA.

Amerika Latinoak aurreikusi zena baino jarduera hobea erakutsi zuen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, kanpoko zailtasunak gorabehera. AEBetako interes tasen igoerak, Covid-19ak Txinan eragindako konfinamendu neurriek eta elikagaien zein energiaren nazioarteko prezio altuek ez zuten eragin argirik erakutsi eremu horretako ekonomia nagusietan. Izan ere, prezioen igoerak eragin positiboa izan zuen Brasilen (BPGa %3,6 igo zen, bigarren hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago) eta Mexikon (%4,3, aurreko hiruhilekoko balioa baino ehuneko bi puntu gehiago). Bi herrialde horietan, esportazioen bilakaera onak hazkundera bultzatu zuen, eta

Kolonbian (%7,1), berriz, barne eskariaren indarra izan zen jarduera ekonomikoaren bultzatzaile nagusia.

Asian, Txinak indarra berreskuratu zuen berriro, eta urte arteko %3,9 egin zuen gora, aurtengo bigarren hiruhilekoan izandako %0,4ko hazkunde ahula atzean utzita. Hala ere, igoera garrantzitsu hori, hein handi batean, 2021eko hiruhileko berarekiko alderaketan izandako oinarrizko efektuari esker izan zen. Une hartan, delta aldaeraren hedapenaren ondorioz, herrialdeak botila lepo latzei aurre egin zien, eta portuak itxi eta ekoizpena eten zuen. Izan ere, Txinako higiezinaren krisiaren presio gero eta handiagoa oztopoa da bertako hazkunderako, etxebizitzaren prezioek hilabeteak behera egin dutelako, eta Txinak zero Covid-eko politika eztabaidagarrian jarraitzen duelako. Hala jasotzen du urriko (49,0) eta azaroko (47,1) PMI adierazleak, bi kasuetan hedapen mailaren azpitik kokatu zena. 2023ko datuei itxaron beharko zaie 2022ko abendutik espero den kontrol neurrien erlaxazioak industria jarduera eta, horrekin batera, BPGa bultzatzea lortzen duten egiaztatzeko.

Herrialde aurreratuak, bestalde, %3,3 hazi ziren udako hilabeteetan, aurtengo bigarren hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago, eta haien inflazioa %10,7ra igo zen urrian, elikagaien prezioen igoeraren ondorioz (%16,1), 1974ko maiatzetik izandako tasarik altuenera iritsi baitziren, inflazio energetikoa %28,1era jaitsi bazen ere.


BPGaren sendotasun hori, neurri batean, ekonomia estatubatuarrak erakutsi zuen egonkortasunaren isla izan zen. Zehazkiago adierazita, AEBek 2021eko hirugarren hiruhilekotik bere ekonomiak zuen beheranzko bidea iraultzea lortu zuten, eta bertako BPGa %1,9an sendotu zuten, aurreko erregistrotik hamarren bat gorago. Eraitza on hori eta lan merkatuak erakutsitako indarra gorabehera (langabezia tasa egonkor mantendu zen azaroan, %3,7an), litekeena da bere ekonomiaren egonkortasuna ez egotea hain ondo finkatuta. Hazkunderaren osagaiak aztertuta, hautematen da kontsumo pribatua berriro hoztu zela eta bizitegietan eginiko inbertsioa amildu egin zela, argi eta garbi barne eskariaren ahultzearen seinale; KPIa, berriz, %7,1ean kokatu zen azaroan, aurreko hilabeteen aldean leuntze esanguratsua markatuta, baina oraindik ere maximoetan 1982. urteaz geroztik. Hori guztia Erreserba Federalak 40 urte baino gehiagoan izandako diru uzkurduraren ziklo indartsuenaren erdian, martxoaz geroztik 375 oinarri puntu igo baitu interes tasa. Halaber, azaroan, herrialdeko PMI konposatuak bere seigarren hilabetea jarraian pilatu zuen 50 puntuko atalasearen azpitik, eta manufakturen indizeak lehen aldiz 2020ko maiatzetik.

Japonian, jarduera ekonomikoak suspertzen jarraitu zuen hirugarren hiruhilekoan, eta bere BPGa %1,7ra igo zen, aurtengo lehen hiru hilabeteetako balioa baino 1,1 puntu gehiago. Datuek erakusten dute kontsumo pribatuak, geroratuak eskariak babestuta, eutsi egin ziola udako Covid-19aren olatuari; inbertsioak, bederatzi hilabetez etengabe uzkurkuta egon ondoren,


hazkunde positiboak berreskuratu zituela (%0,5); eta esportazioak, Japoniako ekonomiaren beste zutabe nagusia baita, azkar hazi zirela. Hala eta guztiz ere, Japoniak ere bere susperraldia oztopatuta ikus dezake. Kasu horretan, prezioen igoera handien eraginak kontsumitzaileen konfiantza ahuldu lezake, eta horrek kontsumoa murriztu eta inbertsioa atzeratu. Izan ere, inflazioa %3,8raino igo zen urrian, 40 urtetan ikusitako mailarik altuenera (BEZ zerga igo duten uneak alde batera utzita), lehengaien prezioen igoeragatik eta yenaren ahuleziagatik elikagaien garestitzearen ondorioz.

Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Europar Batasuna 27



Iturria: Eurostat eta BEA.

Europar Batasuna, berriz, goranzko joera horretatik alden du zen, eta bere BPGa nabarmen moteldu zen 2022ko hirugarren hiruhilekoan. Zehatzago esanda, kontinente zaharreko jardura ekonomikoa %2,5 hazi zen, maila garrantzitsua dena oraindik, baina aurreko hiruhilekoetan erregistratutako balioetatik urrun. Euroaren eremuko jardura ekonomikoak %2,3 egin zuen gora, eta joera berdintsua erakutsi zen. Bi arlo horietan, kontsumo pribatuak indarra galdu izanak ekarri zuen dinamismo apalago hori. Inflazio handiak kontsumoa eta ekoizpena geldiarazten jarraitu zuen, erosteko ahalmena murriztuta eta enpresen kostuak gorantz bultzatuta. Gas hornikuntzan izandako desadostasun larriek are gehiago okertu zuten egoera, eta konfiantza azkar jaitsi zen sektore guztietan. Zehatzago adierazita, Europako Batzordeak argitaratutako sentimendu ekonomikoaren indizea (ESI) 100 puntutik behera jaitsi zen uztailean, eta hor jarraitu du argitaratutako azken daturaino (92,2ko azaroa). Batez besteko balioaren azpitik jarraitu arren, hilabete horretan beheranzko bidea gelditu zen, eta nolabaiteko hobekuntza lortu zuen urriko datuarekin alderatuta.

Hala, Frantzia, Italia edo Espainia bezalako herrialdeek nabarmen apaldu zuten beren kontsumo pribatua, eta Frantziaren kasuan murriztu egin zen, eta horrek nabarmen moteldu zuen beren jarduera ekonomikoaren hazkunde tasa. Zehazki, Frantziako BPGa aurreko %4,2tik hirugarren hiruhereneko %1,0ra moteldu zen, Italiakoa %5,0tik % 2,6ra eta Espainiakoa %7,6tik %4,4ra. Alemaniak ere kontsumo pribatua murriztuta ikusi zuen, baina analisten harridurarako, inbertsioak hazkunde positiboak berreskuratu zituen eta esportazioak biziberritu egin ziren. Horri esker, herrialde germaniarrak urte arteko %1,3ko hazkundera eskuratu zuen. Hala ere, krisiaren itzalak Alemaniaren gainean dabil oraindik. Ukrainako gerrak, zurrenik, Alemaniaren eredu ekonomiko arrakastatsuen amaiera markatu du: energia eta kontsumoko ondasun merkeak Errusiatik inportatzea, mundura kalitate handiko produktuak esportatzen dituen bitartean, globalizazioari etekina ateraz.

Prezioei dagokienez, azaroan euroguneko inflazioa moteldu egin zen lehen aldiz hamazazpi hilabetez, eta sei hamarren jaitsi zen, % 10,0ra iritsi arte, oraindik oso maila altua delarik. Energiak azaltzen du Europa osoko inflazio igoeraren zati handi bat, eta orain bera da prezioen lasaitzearen protagonista. Azaroan inflazioak izan duen galga orokorra izan da. Euroguneko ia herrialde guztiek, Eslovakiak izan ezik, ikusi dute prezioek zertxobait lasaitzen zutela presioa. Kontrako norabidean kokatu zen Espainia, %6,6ko KPIarekin euroaren eremuko 19 herrialdeetako batez bestekoa baino 3,4 puntu beherago baitago, ezohiko egoera baita. Lan merkatuak, berriz, bere indarrari eutsi zion, nahiz eta sendotasuna galtzen ari den. Zehazki, Europar Batasuneko langabezia-tasa %6,0 izan zen urrian, aldaketarik gabe irailarekin alderatuta, eta 2020ko otsailean pandemiaren aurretik ikusitako mailak baino 0,9 puntu beherago dago orain.

Urtearen amaierari begira, jardueraren lehen adierazleek seinalatzen zuten irailetik aurrera egoera ekonomikoa nabarmen okertu zela. Eurogunean, enpresen PMI konposatuaren indizeak beheranzko joerari jarraipena eman zion eta 47,3 puntutan kokatu zen urrian (48,1ean zegoen irailean), ia bi urteko mailarik baxuena delarik. Hala ere, azaroko eta abenduko datuek nolabaiteko baikortasuna erakutsi dute. PMI pixka bat hazi da 48,8ra arte, eta ESIk ere gora egin zuen zertxobait. Bi kasuetan datuak hedapen eremutik kanpo daude, baina badirudi haien narriadura gelditu egin dela.

Europar Batasunetik kanpo, Erresuma Batuan inflazio handiak (urrian %11,1era iritsia zen), interes tasen igoerak eta erosketaren saskiaren prezioek (Brexitaren ondorioengatik Europakoak baino are handiagoak ere badira) BPGa murriztu dute. Urte arteko tasetan oraindik positiboa bada ere (%2,4), hiruhereneko arteko tasetan %0,5 gutxitu da. Horren ondorioz, Ingalaterrako Bankuak pentsatu du ekonomia britainiarra jada bi urtez luzatu litekeen atzeraldian sartu dela, 2008ko krisiak Erresuma Batuari eragin ziona baino gehiago.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomiaren moteltzeak jarraitu zuen 2022ko hirugarren hiruhilekoan, eta BPGaren hazkundera %3,8an kokatu zen, aurreko datua baino puntu bat baino gehiago beherago. Hazkunde erritmoaren apaltze hori aurreikusita zegoen aurreko txostenean aurkeztutako agertoki makroekonomikoan, eta, beraz, ez da beheranzko ezustekoa izan. Dinamismo txikiagoa azaltzen duten arrazoiak honako hauek dira: Ukrainako gerraren ondorioak, energiaren sektoreko krisia, inflazio handia, moneta politikaren norabide aldaketa, pandemia geldiarazteko Txinaren politika zorrotza eta aurreko guztiak sortu duen ziurgabetasuna. Hala ere, emaitza positibotzat hartu behar da, bai EAEko ekonomiak azken hamarkadan izan duen batez besteko hazkundearekin alderatuz gero, bai inguruko herrialdeen erritmoak aztertuz gero. Izan ere, Europar Batasuna %2,5 hazi zen hiruhileko berean, euroaren eremua %2,3, Alemania %1,3 eta Frantzia %1,0. Hazkundera Espainiako ekonomiarena (%4,4) baino zertxobait apalagoa da.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	-9,6	5,9	4,7	4,9	5,8	5,0	3,8
Nekazaritza eta arrantza	-16,9	21,9	29,1	14,5	-1,7	-3,2	8,0
Industria eta energia	-12,2	6,1	2,4	3,7	6,5	6,1	3,8
- Manufakturen industria	-13,1	5,6	1,9	2,5	5,9	5,9	2,8
Eraikuntza	-14,4	4,5	4,7	2,5	1,9	1,5	2,5
Zerbitzuak	-7,9	5,8	5,2	5,5	6,2	5,6	4,3
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	-20,4	11,8	12,5	14,6	13,1	14,1	9,9
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	1,1	3,1	3,5	3,2	3,0	1,3	1,2
- Gainontzeko zerbitzuak	-4,3	4,0	2,2	1,7	3,9	3,0	2,6
Balio erantsi gordina	-9,4	5,9	4,7	5,0	6,0	5,4	4,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-11,9	6,1	4,2	4,1	3,9	3,2	2,8

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriak hirugarren hiruhilekoan bizi zuen dezelerazioa nabarmentzen da, hazkunde erritmoa bi puntu baino gehiago moteldu baitzuen, %3,8raino, eta ekonomiaren motor nagusia izateari utzi zion, balio erantsi osoak lortutako tasa (%4,1) baino pixka bat beherago kokatuz. Sektorearen barruan, moderazioa handiagoa izan zen manufakturretan (%2,8) energian baino; izan ere, eskari handiak eta prezioen igoerak mesede egin zioten jarduera horri. Industriaren intentsitate galera nazioarteko ingurunean sortu den ziurgabetasunarekin lotuta dago, atzerriarekiko lehiaren eraginpean gehien dagoen sektorea baita.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
Industria							
Industria produkzioaren indizea	-13,4	10,5	6,8	6,5	8,0	7,4	3,3
Negozio zifren indizea	-16,2	18,2	16,1	15,6	21,5	38,7	22,9
Industria giroaren indizea	-19,5	-10,2	-16,4	-10,7	6,5	4,7	0,4
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-3,2	-0,5	1,2	0,7	1,5	1,1	0,8
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-8,1	7,8	4,5	2,7	7,5	8,6	11,5
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	-6,5	39,6	36,6	9,9	0,2	-34,9	3,1
Etxebizitzaren salerosketak	-13,6	21,3	17,4	9,0	16,6	6,0	10,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,9	1,1	1,0	1,1	1,9	1,7	1,5
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	-71,6	57,5	118,5	278,5	382,5	272,1	53,2
Hoteletan igarotako gaualdiak	-61,5	73,3	81,4	216,8	176,5	146,5	20,2
Negozio zifren indizea	-12,4	15,4	12,8	17,4	18,1	20,5	14,1
Zerbitzuen koiuntura indizea	-7,4	6,0	1,7	2,4	4,8	5,2	-0,4
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,8	1,2	2,0	2,3	2,9	2,9	2,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren produkzioak balio erantsiaren antzeko bilakaera erakutsi du, eta intentsitatea nabarmen moteldu da hirugarren hiruhilekoan. Hala eta guztiz ere, urrian sektorearen jarduerak gora egin zuen eta IPIaren urte arteko tasa %4,8ra iritsi zen. Deigarria da hilabete horretan energiaren ekoizpenak aurreko hilabeteetako tasa altuak alde batera uztea eta hazkundera %4,6an uztea, batez bestekoaren azpitik. Aitzitik, aurreko hilabeteetan nolabaiteko ahulezia erakutsi zuten kontsumo ondasunen ekoizpenean (%5,7) eta bitarteko ondasunetan (%4,0) izan

zen gorakada. Azkenik, ekipamenduko ondasunen ekoizpenak %5,7ko hazkundera izan zuen, eta horrek sektoreko batez bestekoaren gainera mantentzen du EAEko industriaren egituraren hain garrantzitsua den atal hori.

Sektorearen igurikimenak okertzen joan dira udaberriko hilabeteetan lortutako maximoetatik, baina oraindik ere irudi baikorra eskaintzen dute, industria giroaren indizetik ondorioztatzen denez. Zehazki, eskaera zorroari buruzko iritziek okerrera egin zuten udako hilabeteetan, baina hobera egin dute udazkeneko hilabeteetan. Antzeko zerbait gertatzen da ekoizpenaren joerarekin, okerrera egin ondoren azaroan suspertu egin baitzen. Bi kasuetan, iritziaik baikorrak dira orain duela urtebete bat baino. Enpleguak etorkizunean izango duen bilakaerari buruzkoak ere bai.

Industriaren moteltzearen aurrean, eraikuntzak aurreko hiruhilekoetan baino bilakaera dinamikoagoa erakutsi zuen. Jarduera horri kalte egin zion energiaren eta lehengaien kostuen igoera azkarrak, eskari handiaren eta Ukrainako gerrak ekarri zuen eskasiaren ondorioz. Hala ere, badirudi arazo horiek konpontzen ari direla eta sektoreak bere indarra berreskuratzen ari dela. Horiek horrela, hirugarren hiruhilekoan bere balio erantsia %2,5 handitu zen, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gehiago. Eraikuntzaren koiuntura indizeak iradokitzen du jarduera berreskuratzea lortu dela, bai eraikinen atalean bai obra zibilean, lehengaien prezioek gora egiten jarraitzen duten arren.

Zerbitzuek ere hazkunde erritmo handia moteldu zuten, baina haien aldakuntza-tasa (%4,3) balio erantsiaren batez bestekoaren gainera kokatu zen. Halaber, sektorearen balio erantsiak lortutako mailak maximo bat markatu zuen berriro serie historikoan, pandemia hasi aurreko balioen oso gainera.


Sektorearen jarduera taldeen arabera banakapenak alde handiak erakusten ditu jarduera bakoitzaren hazkunde erritmoetan. Mutur batean, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak berriz ere tasa apartak erregistratu zituen (%9,9), pandemia kontrolatzeko ezarri ziren murrizketak kentzeari eta birusa iritsi aurreko kontsumo ereduera itzultzeari esker. Atal honek azken sei hiruhilekoetan hazkunde tasa handiak erakutsi dituen arren, oraindik ez du berreskuratu 2019an izan zuen jarduera maila. Aitzitik, aldakuntza tasa txikiak dituzten beste bi taldeek pandemiaren aurreko balioak gainditu dituzte jadanik. Administrazio publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte zerbitzuen taldean, balio erantsiaren hazkundera %1,2 izan zen, aurreko hiruhilekoaren antzekoa, eta gainerako zerbitzuetan, berriz, %2,6, urtearen hasieratik moteltze garbia erakutsiz.

Turismoari lotutako jarduerak suspertzen jarraitu dute azken hilabeteetan, azkenaldiko inflazio handia familien erosteko ahalmena murrizten ari den arren. Izan ere, aurtengo hirugarren hiruhilekoan 2,2 milioi gualdi baino gehiago erregistratu ziren hotel establezimenduetan, serie historikoko kopururik handiena eta aurreko urtean baino %20,2 gehiago; urrian eta azaroan, berriz, aldakuntza tasak %17 ingurukoak izan ziren oraindik. Era berean, EAEko aireportuetatik igaro ziren pertsonen mugimenduak %40 inguruko hazkundera izan zuen urrian eta azaroan, eta tasa hori oso esanguratsua da oraindik.


BPGaren moteltzea enplegu sorkuntzaren gorakada mugatuago batean islatu da. Kontu ekonomikoen zenbatespenaren arabera, aurtengo hirugarren hiruhilekoan, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %2,0 handitu zen aurreko urtearen aldean. Tasa hori oraindik esanguratsua da, baina ia aurreko hiruhilekoan erregistratutakoaren erdia da, enplegu garbia sortzeko gaitasuna moteltzeko prozesu argi batean murgilduta dagoela erakutsiz. Hala eta guztiz ere, zenbatetsi den lanpostuen kopuruak milioi bat enpleguko langa gainditu zuen eta kopuru hori ez zen 2008tik lortzen. Beste aldetik, azken hamabi hilabeteetan 19.500 lanpostu gehiago izan ditu EAEko ekonomiak, gehienak zerbitzu jardueretan (17.500), baina industriak ere ekarpen positiboa egin du (1.500).

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantza.

BJA inkestak egindako zenbatespenaren arabera, enpleguaren sorrera tasa berdintsutan banatu zen gizonen eta emakumeen artean. Hain zuzen ere, inkesta horren kalkuluaren arabera, enplegua %2,2 igo zen gizonen artean, eta emakumeen kasuan, berriz, %1,9 izan zen gorakada. Beste era batera esanda, duela urtebete baino 11.000 gizon eta 9.000 emakume gehiago ari dira

lanean. Enplegu sorrera horren ondorioz, enplegu tasak gora egin du berriro, eta %51,8ra iritsi da, 2008tik izan den altuenera. Nabarmendu behar da emakumeen kasuan tasa hori %47,4an kokatu dela, gizonen tasatik bederatzi puntura oraindik (%56,5), baina inoiz izan den tasarik handiena dela eta emakumeek lan merkatuan parte hartzeko duten joera gero eta handiagoa erakusten duela.

Emakumeek betetzen dituzten lanpostuek berezko ezaugarri batzuk dituzte, eta, ondorioz, gizonen enpleguak baino kalitate eskasagoa dute. Izan ere, 2022ko hirugarren hiruhilekoan, BAIK egindako zenbatespenaren arabera, emakumeen %22k lanaldi partzialeko enplegua zuen, eta gizonen %8,2k soilik. Hain zuzen ere, ordaindutako lanean emandako denboraren ezberdintasun hori da generoen arteko soldata arrailaren arrazoi nagusia. Era berean, soldatapeko emakumeen %26,1ek aldi baterako kontratua zuen; gizonen kasuan, berriz, %16,6k. Bi aldagai horien bilakaerak ez du iradokitzen aipatutako diferentziak zuzentzen ari direnik.

Badirudi enplegu sorreraren moteltzea gelditu egin dela 2022ko azken zatian, Gizarte Segurantzako afiliatietatik eratorritako informazioaren arabera. Izan ere, aurtengo hirugarren hiruhilekoko %1,8ko igoeraren ondoren, urrian eta azaroan erregistro horrek %1,7ko hazkundera erakutsi du, hamarren bat gutxiago bakarrik. Kasu horretan, nabarmentzekoa da emakumeen afiliazioaren hazkundera, azken hilabeteetan %1,9an mantendu baita. Sektoreka, hazkunde erritmoa homogeneizatu egin da, eta azaroan industriaren %1,3 eta zerbitzuen %1,8 artean kokatu dira sektore guztiak.

Enplegu sorrerak langabezia tasa murrizteko balio izan du, eta hirugarren hiruhilekoan %7,9ra jaitsi da tasa hori, aurreko datua baino sei hamarren beherago. Bi sexuak izan ziren jaitsiera horren onuradun: emakumeen tasa %8,3an kokatu zen, eta gizonena, berriz, %7,4an. Guztira, EAEn 82.400 pertsona har daitezke langabetzat, duela urtebete baino 9.500 gutxiago. Horietatik 42.000 emakumeak dira.

BPGaren (%3,8) eta lanpostuen (%2,0) hazkundeak iradokitzen du lan faktorearen itxurazko produktibitatearen irabazia %1,8 izan zela hirugarren hiruhilekoan, eta zifra hori handia da batez besteko historikoarekin alderatuta (%0,8). Deigarria da hiruhileko horretan zerbitzuek (%1,8) eta eraikuntzak (%1,9) lortutako efizientziaren hobekuntza, irabazi txiki samarrak izaten baitituzte sektore horiek. Bestalde, industriak produktibitate hazkunde handiagoak izan ohi dituen arren (%1,5), hirugarren hiruhilekoan %3,0ko hobekuntza eskuratu zuen. Espero izatekoa da datozen hiruhilekoetan produktibitatearen hazkundera ohiko balioetara hurbiltzea, azken bi hiruhilekoetan lortutakoak baino apalagoak izango direnak.

Barne eta kanpo eskaria

BPGari egindako bi ekarpen bereziki handien ondoren, 2022ko hirugarren hiruhilekoan kanpo saldoak bere ekarpena moteldu zuen, 1,3 puntu ingurura iritsi arte. Aitzitik, barne eskariak %2,4ko hazkunde tasa eskuratu zuen eta aurreko hiruhilekoko tasa berdindu zuen; beraz, hazkundeari egindako ekarpena ordukoaren antzekoa izan zen. Horiek horrela, EAEko BPGak hirugarren hiruhilekoan erakutsi zuen moteltzeko joera guztiaren arrazoia atzerriarekiko merkataritzaren dinamismo txikiagoa da. Izan ere, zenbait hiruhilekotan ondasunen eta zerbitzuen esportazioak, balio errealetan, %13,5etik gora hazi ondoren, ezagutzen den azken hiruhilekoan erritmoa %9,2ra apaldu zen, eta tasa hori oraindik ere oso esanguratsua da. Inportazio errealean kasuan, apaltzea txikiagoa izan zen eta hirugarren hiruhilekoko hazkundera urte arteko %5,6ra iritsi zen.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	-9,6	5,9	4,7	4,9	5,8	5,0	3,8
Gastua azken kontsumoan	-8,9	5,2	2,9	3,8	2,6	1,5	1,7
- Familien gastua kontsumoan	-12,1	5,6	2,5	4,0	3,2	3,0	2,4
- Adminis. gastua kontsumoan	2,9	3,9	4,4	3,3	0,6	-3,1	-0,7
Kapital eraketa gordina	-12,1	6,0	2,9	3,0	4,9	5,0	4,9
- Ekipamendu ondasunak	-11,8	10,9	5,8	5,7	9,1	9,0	6,9
- Gainontzeko inbertsioa	-12,3	3,1	1,3	1,3	2,2	2,4	3,7
Barne eskaria	-9,7	5,4	2,9	3,6	3,2	2,4	2,4
Esportazioak	-15,9	12,7	13,6	13,5	13,5	13,7	9,2
Inportazioak	-15,8	11,6	12,6	9,3	10,4	8,5	5,6

Iturria: Eustat.

Bigarren hiruhilekoko motelaldiaren ondoren, barne eskariak erritmoari eusteko arrazoia bi osagai nagusien (hau da, kontsumoa eta inbertsioa) gorakaden egonkortasuna da. Azken kontsumoaren barruan, deigarria da aurreko hiruhilekoan administrazio publikoen kontsumoan izandako beherakada handia, hirugarren hiruhilekoan jarraipena izan zuena, baina orduko baina erritmo askoz txikiagoan. Zehatzago, bigarren hiruhilekoan erregistratu zen -%3,1etik hirugarrenean -%0,7ra igaro zen. Pandemiaren lehen urteetan hartu ziren murrizketak kentzeak,

langileen arloko errefortzuekin, partida batzuetan gastuaren murrizketa txiki bati bide ematen ari zaio.

Beste aldetik, familien kontsumoak nabarmen egin zuen gora berriro, baina aurreko hiruhilekoetan baino erritmo apalagoan. Hain zuzen ere, urte arteko tasa %2,4an kokatu zen, aurreko datua baino sei hamarren beherago. Kontsumo pribatuaren alde jokatzeko dute enplegu sorrera esanguratsua (%2,0) eta pandemian zehar metatutako aurrezkia. Kontrako norabidean, ordea, inflazio handiak, familien erosteko ahalmena, batez ere ahulenena, murrizten baitu, diru sarrera gehienak elikadurara bideratzen baitituzte; hain zuzen ere, gehien garestitu den KPIaren atalera.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	2,1	0,2	-2,8	-1,2	-1,2	-1,2	-1,4
Txikizkako merkataritza indizea	-4,9	3,5	-2,3	3,3	5,0	5,3	0,9
Kontsumo ondasunen ekoizpena	-6,6	11,9	11,0	11,8	8,7	3,5	2,1
Kontsumo ondasunen inportazioa	-0,3	20,0	17,5	22,6	11,0	48,3	16,1
Turismoen matrikulazioa	-22,0	-19,7	-41,8	-32,3	-14,0	-9,8	-11,1
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	-12,5	13,3	10,6	11,7	15,0	13,0	3,0
Ekipo ondasunen inportazioa	-16,4	21,1	17,3	20,1	19,6	23,5	26,8
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-22,5	7,0	-10,9	-28,4	-22,6	-23,5	-21,3
Etxebizitza berriak eraikitzeke oniritziak	-6,5	39,6	36,6	9,9	0,2	-34,9	3,1
Lizitazio ofiziala	-23,7	63,2	71,6	29,2	44,8	-18,6	115,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Inbertsioari dagokionez, nabarmendu behar da %4,9ko urte arteko hazkunde tasa jaso zuela, aurreko bi hiruhilekoetan izandakoaren oso antzeko zifra baita. Beraz, eragile ekonomikoen artean zabaltzen ari den ziurgabetasunak eragin oso mugatua izan du, oraingoz, enpresen inbertsio erabakietan. Oro har, aldakuntza tasa egonkor mantendu bada ere, agregatuaren bi osagaien bilakaera kontrakoa izan zen. Alde batetik, ekipamenduko ondasunetan egindako inbertsioak dinamismo bikaina erakutsi zuen aurreko hiruhilekoetan, eta bi puntu baino gehixeago leundu zuen erritmoa hirugarrenean, oraindik ere aipagarria den %6,9ra iritsi arte.

Beste aldetik, inbertsioaren gainerakoa, eraikuntzan egiten dena barne, %3,7raino areagotu zen, azken bost hiruilekoetako tasarik altuena delarik.

Barne eskariaren egonkortasuna ez dator bat kanpo saldoaren erritmo-galerarekin, nahiz eta oraindik ere jasotzen ari diren aldakuntza tasak oso handiak izan, batez ere esportazioenak. Erritmo galera horren ondorioz, kanpo saldoak BPGaren hazkundeari egindako ekarpena aurreko bi hiruilekoetako 2,5 puntu ingurukoa izatetik hirugarren hiruilekoko 1,3 puntukoa izatera igaro zen, eta alde horrek, berak bakarrik, justifikatzen du BPGa bigarren hiruilekoan %5,0 haztetik hirugarrenean %3,8 haztera igaro izana.

Zehatz-mehatz adierazita, ondasunen eta zerbitzuen esportazioek, termino errealetan neurtuta, erritmoa %9,2ra arte moteldu zuten, aurreko balioak baino 4,5 puntu beherago. Balio nominaletan, hazkunde tasa %18,9ra iritsi zen, eta salmentak 14.874 milioi eurokoak izan ziren, historiako bigarren zifrarik handiena, aurreko hiruilekoko ia 15.800 milioien ondoren. Beste aldetik, inportazio errealak %5,6 gehitu ziren eta nominalak, berriz, %20,6 handitu ziren. Aldakuntza tasa errealen eta nominalen arteko diferentziak iradokitzen du prezioek eragin handia izaten jarraitzen dutela azken emaitzan. Hala eta guztiz ere, esportazioen eta inportazioen unitate balioaren indizeen (UBI) bilakaerak pentsarazten du prezio horien igoeraren gailurra lehen hiruilekoan gertatu zela, eta orduz geroztik igoerak moteltzeko prozesu bat gauzatzen ari dela.

Kanporako salmenta nominal guztien (14.874 milioi euro) ia erdia (7.708 milioi euro) atzerrira bidalitako ondasunak izan ziren. Serie historiko osoko bigarren kopururik handiena da, aurreko hiruilekoan lortutako kopuru apartaren (9.140 milioi euro) ondoren. Aurtengo hirugarren hiruilekoan jasotako urte arteko igoera tasa %23,8 izan zen, aurreko hiruilekoan eskuratu zenaren (%43,0) ia erdia, baina 2021eko batez besteko erregistroarekin (%23,0) bat etorritz. Prezioek paper garrantzitsua izaten jarraitzen dute esportatutako balioetan, saldutako kopuruek portaera apalagoa izan baitzuten. Zehazki, tonatan bigarren hiruilekoko %33,3tik hirugarreneko %7,8ra igaro zen. Azken hiruileko horretan, esportatutako erregai mineralen kantitatea aurreko urtekoa baino %32,0 handiagoa izan zen, eta gainerako produktuek 2021eko kantitateei eutsi zieten soilik.

Zehatzago esanda, EAetik atzerrira esportatu ziren produktu mineralen kantitatea ia heren bat egin zuen gora, lehenago ere adierazi den bezala, baina salmenten balioa ia bikoiztu egin zen aurreko urtekoaren aldean (%98,2). Beraz, 2021ean 424 milioi euroko produktuak saltzetik 2022ko hiruileko berean 841 milioi euro fakturatzera igaro da. Azken hamar urteetako kopururik handiena da hori.

Energiaz bestelako ondasunei dagokienez, saldutako tonak, guztira, 2021eko antzekoak izan ziren arren, salmentaren zenbatekoa aurreko urtekoa baino %18,4 handiagoa izan zen. Igoera esanguratsua izan zen garraio materialean, esportazioa %23,8 igo baitzuen, saldutako kopurua ere handituz (%19,3), eta makina eta aparatuek fakturatutako balioa %2,7 baino ez zuten hobetu, esportatutako kopuruak 2021ekoak baino %8,0 txikiagoak izan arren. Metal arrunten kasua azken horren antzekoa da, %11,4 gutxiago saldu baitzuten eta %16,8 diru gehiago jaso zuten salmentengatik.

Ohikoa izaten ari denez, EAEko enpresen helmuga nagusia herrialde garatuak dira, atzerrira esportatutako ondasun guztien %85 biltzen baitute. Eremu horretan, hirugarren hiruhilekoko esportazioak %26,1 hazi ziren, eta garatzeko bidean dauden herrialdeetara bideratutakoak, berriz, %12,1. Erresuma Batuaren kasuan izan ezik, gainerako merkatu garatuek portaera positiboa erakutsi zuten.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2020	2021	2021		2022		
			IV	I	II	III	III
GUZTIRA	-17,8	23,0	22,2	21,7	43,0	23,8	7.707.927
ELGA	-16,5	23,9	22,4	19,4	44,0	26,1	6.572.388
Eurogunea	-12,7	25,9	23,0	23,4	43,9	24,6	4.432.973
Alemania	-6,1	13,4	8,9	7,8	41,7	20,6	1.167.507
Frantzia	-17,5	27,4	27,8	23,5	38,0	11,7	1.119.757
Italia	-9,4	26,5	19,3	39,0	48,7	15,7	368.669
Erresuma Batua	-42,2	26,2	12,9	-3,5	52,5	7,1	461.346
AEB	-23,8	16,8	38,2	27,2	57,6	34,7	482.977
ELGAtik kanpokoak	-24,0	18,2	20,8	34,7	37,8	12,1	1.135.539

Iturria: Eustat.

Euroaren eremuko ekonomiek bereganatzen dituzte EAEko esportazio gehienak. Eremu horrek %24,6ko hazkundera izan zuen, esportazio osoaren oso antzeko tasa baita. Gehien esportatzen diren EAEko produktuak garraio materialari, metalei eta horien manufakturei dagozkienak izan ohi diren arren, hirugarren hiruhilekoan salmenten hazkunde nagusia erregai mineraletatik etorri zen, saldutako balioa bikoiztu baino gehiago egin baitzen 706 milioi eurora iritsi arte; zifra hori ez zen lehenago inoiz lortu. Zalantzarik gabe, energiaren prezioen garestitzeak azaltzen du atal horrek izandako igoera.

Eremuaren barruan, Alemaniak eta Frantziak lehiari eutsi diote EAEko produktuen lehen merkatu gisa, 1.100 milioi eurotik gorako salmentekin bi kasuetan. Alemaniaren kasuan, urte arteko hazkunde tasa %20,6ra iritsi zen, eta emaitzak positiboak lortu ziren atal nagusi guztietan. Garraio materiala, herrialde horretara esportatutako produktu guztien ia erdia metatzen baitu, %25,3 hazi zen; metalak eta beren manufakturak, berriz, %20,9ko hazkundea eskuratu zuen. Aitzitik, igoera apalagoa izan zen makinak eta aparatuak biltzen dituen taldean, %2,3ra mugatu baitzen.

Frantziara bideratutako salmentek batez bestekoa baino hazkunde txikiagoa izan zuten eta %11,7an kokatu zen, azken sei hiruherikokoetako tasarik apalena baita. Herrialde horretan gehien eskatzen den produktua metalak eta beren manufakturak dira, eta hirugarren hiruherikokoan eskari urria izan zuten (-%6,0). Makinen eta aparatuen salmentaren jaitsierak ere ez zuen lagundu (-%2,8). Hala ere, emaitzak onak izan ziren gainerako partidetan, hala nola produktu mineraletan (%75,6), garraio materialean (%30,2) eta paperean (%64,9).

Italiako merkatuak portaera ona erakutsi zuen EAEko enpresentzat, eta herrialde horretako salmentak %15,7 handitu ziren, aurreko zazpi hiruherikokoetako emaitza onei jarraipena emanez. Metalek eta beren manufakturrek Italiara zuzendutako esportazio egituraren zati handi bat hartzen dute, eta %22,1eko hazkundea izan zuten. Garraio materiala tasa horren gaineratik kokatu zen (%49,8), automozioaren suspertzeari esker. Aitzitik, makinak eta aparatuen salmentak %3,1 baino ez zuen gora egin.

Erresuma Batuarekiko merkataritza harremanak produktu energetikoak erosteak eta saltzeak baldintzatzen dituzte. Hirugarren hiruherikokoan, guztizko esportazioak %7,1 handitu ziren, kopuru apala, aurreko hiruherikoko %52,5aren aldean. Aurreko urteko hiruherikoko berean saldutako 40 milioi euroen eta aurtengo bigarren hiruherikokoan saldutako 67 milioi euroen aldean, hirugarrenean 8,6 milioi euroko balioa zuten produktu mineralak baino ez ziren esportatu. Halaber, metalak %15,2 jaitsi ziren, baina makinak eta garraio materialaren datu onekin konpentsatu zen.

AEBetara bidaltzen diren esportazioek ere osagai garrantzitsua dute energian, eta, Erresuma Batuan bezala, hirugarren hiruherikokoan salmenta nabarmen murriztu zen (%27,2 jaitsi zen). Hala ere, badira herrialde horretara egindako esportazioan pisua hartzen ari diren beste produktu batzuk, portaera bikaina erakutsi dutenak. Guztira, salmentak %34,7 handitu ziren, eta herrialde hartako fakturazioa (483 milioi euro) hurbilago dauden herrialdeetako baino handiagoa izan da, hala nola Italiakoa (369 milioi) eta Erresuma Batukoa (461 milioi). Metalek eta beren manufakturrek %150,2ko hazkundea izan zuten, eta herrialdean saldutako guztizkoaren ia %30 metatzen dute. Garraio materialak ere hobera egin du, esportazioak %89,7 hazi baitira.

EAEko produktuen salmenta garapen bidean dauden herrialdeetan %12,1 handitu zen hirugarren hiruherilekoan, hau da, esportazio guztien batez besteko hazkundearen ia erdia. Ere horretara bidaltzen diren hiru ondasun talde nagusiek tasa apalak edo negatiboak jaso zituzten. Izan ere, makinaren eta aparatuen esportazioak, esportazio egituraren pisu handiena duen atalak, %11,4ko urte arteko jaitsiera izan zuen, eta garraio materialak, garrantzian bigarrena, %3,3 baino ez zuen gora egin. Azkenik, metalek eta beren manufakturek %14,1eko aldakuntza positiboa lortu zuten.

Asiako erraldoiaren Covid zero politikak eta hiri handietako konfinamenduek eragina izan dute Txinan egindako salmentetan. Hala, EAEk herrialde horretara egindako esportazioak %20,0 murriztu ziren aurreko urtearen aldean, sei hiruherileko jarraian hazkunde tasa handiak izan ondoren. Garraio materialaren salmentak, bereziki ibilgailu automobilena, erreferentzia izaten jarraitzen du hara esportatzen diren produktuen artean eta %16,9ko jaitsiera izan zuten. Era berean, makinek eta aparatuek %15,3ko murrizketa izan zuten. Alde positiboan, bi ataletan (nekazaritza produktuak eta produktu mineralak) baino ez da igoerarik ikusten, eta horiek pisu marjinala dute merkatu horretako salmenten egituraren.

Europar Batasunak Ukrainaren inbasioaren ondorioz Errusiari ezarritako zigorrak EAEk herrialde horrekin duen merkataritza harremana baldintzatzen ari dira, gutxitu baita, eta esportazioen kasuan, aurreko urtean saldutakoaren heren batera murriztu da. Zehazkiago adierazita, gerra hasi aurreko lau hiruherilekoetan esportatutakoaren balioa 50 milioitik gorakoa izan zen bitartean, hirugarren hiruherilekoan 16 milioira mugatu zen, %68,5eko jaitsierarekin. Makina eta aparatuen salmenta, garrantzitsuen zena, 7 milioi eurora murriztu da. Galdaketa manufakturetan soilik ikusten da salmenten hazkundera, eta atal hori ez da bi milioi eurora iristen. Automobilgintzari gehien lotutako ondasunak (garraio materiala, plastikoa eta kautxua) %80 baino gehiago murriztu dira.

Brasil helmuga garrantzitsua da EAEko enpresentzat, 94 milioi euro balio zuten produktuak saldu baitzituzten merkatu horretan. Urte arteko hazkunde tasa (%28,5) aurreko bost hiruherilekoetako emaitza onei gehitu zaie. Salmenta guztien ia erdia makinei eta tresnei dagokie (45 milioi euro), eta gero metalei eta horien manufakturei (21 milioi euro), azken hauek ere pisua irabazten ari dira. Garrantziari dagokionez, hirugarren atala garraio materiala da, kasu honetan produktu aeronautikoekin bat datorrena, nahiz eta automobilek ere garrantzia duten herrialde horrekiko merkataritzan.

Esportazioek bezala, inportazioek ere hazkunde nabarmena eskuratu zuten aurtengo hirugarren hiruherilekoan (%46,1), 7.605 milioi eurora iritsi arte, aurreko hiruherilekoan lortu zen balio maximoetik hurbil dagoen kopurua baita. Emaitza handi horrek zerikusi handia du energiaren garestitzearekin, erregai mineralengatik ordaindutako zenbatekoa bikoiztu egin baitzen,

inportatutako kantitatea aurreko urtekoa baino %13,0 handiagoa bakarrik izan zen arren. Prezioen igoerak gainerako produktuei ere eragiten die, haien faktura %24,1 hazi baitzen, inportatutako tonak %8,7 murriztu ziren arren.

Jatorrizko merkatuen azterketak adierazten du gorabidean dauden herrialdeei egindako ordainketa euroaren eremuko herrialdeena baino handiagoa izan zela, nahiz eta EAEk harreman handiagoa izan azken herrialde horiekin. Beste behin ere, energiaren garestitzeak azaltzen du garapen bidean dauden herrialdeen hazkunde handiago hori; izan ere, hiruhileko horretan Brasil, Irak eta Libia izan ziren produktu energetikoen hornitzaile nagusiak, baina AEBek ere protagonismo nabarmena izan zuten, eta, horri esker, salmentak %189,9 igo ziren EAEn. Errusiaren kasuan, produktu horien inportazioa %40 inguru murriztu zen.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2020	2021	2021		2022		
			IV	I	II	III	III
GUZTIRA	-21,9	34,1	46,9	42,4	51,1	46,1	7.605.343
ELGA	-18,9	28,0	31,8	36,0	48,4	32,0	4.548.325
Eurogunea	-14,4	28,5	24,6	31,0	30,3	19,5	2.733.129
Alemania	-14,9	21,1	14,1	26,6	24,6	20,7	829.458
Frantzia	-11,8	29,8	27,5	32,7	43,4	10,7	521.622
Italia	-11,3	34,8	10,6	24,3	21,8	14,1	308.895
Erresuma Batua	-20,0	33,6	53,9	131,6	64,5	-20,5	117.414
AEB	-39,9	20,6	67,6	187,2	522,9	189,9	743.638
ELGAtik kanpokoak	-28,4	48,8	93,1	56,5	56,8	73,7	3.057.018

Iturria: Eustat.

Hain zuzen ere, faktura energetikoaren garestitzeak eragin du EAEko atzerriarekiko merkataritza saldoaren aparteko murrizketa: bigarren hiruhilekoan 1.285 milioi eurokoa izan zen eta hirugarrenean, berriz, 103 milioikoa. Ohikoa den bezala, energiaren bestelako produktuen saldoa positiboa izan zen berriz ere (1.889 milioi euro), eta aurreko hiruhilekoetan jasotakoaren oso antzekoa. Hala ere, berez negatiboa izaten den energia saldoa 1.786 milioi eurora arte handitu zen, serie historiko osoko zifrarik handiena delarik. Merkataritza saldoa oso negatiboa izan da AEBekiko merkataritza harremanetan, energia garestia erosteagatik, baina gainerako herrialde garatu nagusiekin saldo positiboak mantendu egin dira.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Beste behin ere, aurreko hilabeteetan gertatu zen bezala, prezioak aztertzen dituzten adierazle guztiek historikoki oso altuak diren balioak markatzen jarraitu zuten. Hala, BPGaren deflatoreari dagokionez, 2021eko amaierako eta 2022ko hasierako zifrak baino txikiagoak aurkeztu zituen arren, oraindik nabarmena den %3,6an kokatu zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan. Osagaien artean, kontsumoaren deflatorea nabarmendu zen, daukan garrantziagatik, produktu energetikoen bidez inportatutako inflazioaren pisu handiaren isla, nahiz eta prezioak moteltzen hasi diren.

KPI indizeari dagokionez, hiruhileko horretan jaso zuen balioa aurreko hiruhilekoan erregistratutakoa baino puntu bat pasatxo handiagoa izan zen, Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik oraindik ere hornidura kate globaletan gertatzen ari diren botila lepoak direla eta. Hala eta guztiz ere, azaroan, argitaratu diren azken datuak hileko horretakoak baitira, urte arteko aldakuntza tasa %6,5era jaitsi zen. Beraz, hirugarren hiruhilekoko %10 inguruko garestitze-erritmoetatik aldakuntza tasa apalagoetara igaro da, nahiz eta oraindik tasa horiek oso handiak diren.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2020	2021	2022			Ekarpena
			I	II	Azaroa	
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	8,6	9,8	6,5	6,5
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	4,8	6,2	6,1	4,9
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	8,8	12,3	14,6	2,3
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	4,2	5,7	4,9	1,1
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	3,5	4,1	3,6	1,5
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	23,6	23,8	7,6	1,6
- Landu gabeko elikagaiak (%9,3)	4,0	2,6	11,1	13,2	12,6	1,2
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	34,3	32,7	3,0	0,4

Iturria: INE.

Zehatz-mehatz azalduta, kontsumoko prezioen igoerak lau hilabete daramatza jada beheranzko joerarekin, eta gaur egungo zifra urtarriletik, hau da, Ukrainako gerra hasi baino lehen, hona jaso den baxuena da. Beheranzko joera horretan eragin positiboa izan dute petrolioaren, gas

naturalaren eta metalen prezioaren bilakaerak. Faktore horiei gehitu behar zaie gas iberikoaren muga deritzon mekanismoaren ondorio positiboa, oso eraginkorra izan baitzen elektrizitatearen handizkako prezioari eusterakoan, eta hori izan da faktore erabakigarria KPIaren azken moteltzean.

Hain zuzen ere, handizkako merkatuko elektrizitatearen prezioen aldaketarekiko KPIak duen sentikortasun handia izan da EAEko prezioak jadanik euroaren eremuko batez bestekoaren oso azpitik egotearen arrazoi nagusia, eremu horrek %10eko aldakuntza tasa alde batera utzi gabe jarraitzen baitu. Hori horrela izanda, bada, prezioak EAEn Europan baino indar handiagoz igotzea eragin zuen faktorea da une hauetan prezioen igoera horiek apalagoak izatea ahalbidetzen ari dena.

Petrolio gordinaren prezioari dagokionez, ekainean upeleko 130 dolarretik gorako prezioak lortu ondoren, 100 dolarretik beherako zifretan egonkortu zen, bai lehengai horren eskaria motelduko zela uste zelako bai ekoizpena handitu zelako. Beste aldetik, gasaren prezioa asko urrundu zen abuztuko balio maximoetatik, erreserben maila altuak eta ohikoak baino temperatura leunagoek lagunduta. Hala ere, gerrak jarraitzen badu, ez da baztertzen ekoizpen murrizketa gehiago gertatzea.

Gerra horri lotutako energia merkatuaren arazoak, eta gaur egun bizi dena bezalako ziurgabetasun oso handia, interes tasen igoeraren ondorioz eta bigarren txandaren ondorioetarako soldatetan sor daitezkeen presioen ondorioz, izango dira inflazioak epe laburrean izango duen bilakaera zehaztuko duten faktore nagusiak. Beraz, determinatzaile horiek desagertzen badira eta moneta politikaren normalizazioa prezioetara aldatzen bada, inflazioak beheranzko joerarekin jarraitu ahal izango du.

Aitzitik, azpiko inflazioak, KPIk ez bezala, bere urte arteko aldakuntza tasa handitu zuen; izan ere, prezioen igoeraren moteltzea batez ere energiaren eremuan gauzatu zen, eta beste produktu batzuen prezioak, bereziki elikagaienak, hazten jarraitu zuen. Horiek horrela, pandemiari lotutako murrizketak kendu izanak, bere garaian, eskaera berreskuratzea ahalbidetu zuen, eta, hala, zerbitzuek prezioak igotzeari ekin zioten, oraindik maila altu horiek alde batera utzi gabe. Beste aldetik, energiaz bestelako ondasun industrialek etengabe goratu dituzte beren prezioak, automobilak eta altzariak nabarmen garestitu zirelako. Azkenik, elikagaiek izan zituzten aldakuntza tasarik altuenak, eguraldi txarrak eta ongarrrien prezioen hazkunde erritmoak berriro ere gora egin zutelako.

Hala eta guztiz ere, hondar inflazioak gero eta balio apalagoak izaten jarraitu zuen, azaroan urte arteko %7,6ko erregistroarekin. Aurreko urtearen hasieratik ez da tamaina horretako tasa apalik

jaso. Lehen ere adierazi den bezala, erregaien eta lubrifikatzaileen portaera onak elikagaien prezioen igoera bizia konpentsatu zuen, eta beheranzko bilakaera hori lortzea ahalbidetu zuen.

Kontuan hartuta energiak elikaduraren prezioen gorakada konpentsatzea ahalbidetu zuela, etxebizitza eta garraio taldeek izan zituzten beheranzko joera handienak. Izan ere, etxebizitzak, argindarraren faktura osagai nagusia baitu, puntu bat eta erdi baino gehiago gutxitu zuen bere igoera, eta urte arteko aldaketa %0,2an utzi zuen, elektrizitatearen merkatzeari esker. Era berean, garraioarena izan zen beheranzko bilakaera horretan eragin handiena izan zuen bigarren taldea, erregaiak erakutsi zuten merkatzearen ondorioz %8,2tik %7,4ra igaro baitzen bere aldakuntza tasa. Elikagaien taldeak, aldiz, ia urte osoan erakutsi duen prezioak gero eta gehiago igotzeko joerarekin jarraitu zuen, baina azken hilabeteen gorakadak bizkortzeari utzi egin zion.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021		2022		
			IV	I	II	III	Azaroa
Indize orokorra	-0,1	3,1	5,5	7,6	8,6	9,8	6,5
Janariak eta alkohol gabeko edariak	2,8	2,0	2,9	5,7	10,3	13,6	15,0
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,2	0,4	1,2	2,5	4,4	5,0	4,8
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,0	1,0	3,9	2,8	4,1	-0,1
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-3,3	11,3	20,7	26,8	18,7	21,5	0,2
Etxeko hornidura	0,5	1,9	2,8	4,6	6,0	7,4	8,2
Medikuntza	0,5	0,8	1,3	0,8	0,3	0,6	0,6
Garraioa	-3,6	7,3	11,6	13,4	14,3	11,1	7,4
Komunikazioak	-1,1	-2,9	-0,3	-0,6	-0,2	-2,3	-2,0
Aisia eta kultura	-1,0	-0,1	1,6	1,3	3,4	4,4	3,6
Irakaskuntza	1,1	0,9	1,7	1,5	1,5	1,6	2,0
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,2	1,2	2,0	3,2	6,2	7,5	6,9
Besteak	0,9	1,3	2,2	3,0	3,4	4,2	4,5

Iturria: INE.

Industriako prezioek, beste aldetik, moteldu egin zuten bere beheranzko joera, maiatzean hasi baitzen; hilabete horretan, serie historiko osoko erregistrorik altuena jaso zen, urte arteko aldakuntza tasa %29,7an kokatuta. Zehazkiago adierazita, urrian, datuak eskuragarri dauden

azken aldia baita, urte arteko aldakuntza tasa %21,8koa izan zen. Garraioaren kostuak jaitsi eta izakinak berreskuratu ziren arren, bitarteko ondasunen prezioek tasa altuetan jarraitu zuten. Era berean, produktu energetikoez beren hazkunde tasak moteldu zituzten, baina indizea osatzen duten taldeen artean inflazio handiena ezagutu zutenak izan ziren berriro.

Beste behin ere, hitzarmen kolektiboei buruz eskuragarri dagoen informazio berrienak soldata dinamika neurritsua dela adierazten jarraitu zuen, eta iguera horiek gaur egungo inflazio tasekin alderatuta apalak direla iradokitzen du. Zehazkiago adierazita, soldatak KPIa baino hiru puntu gutxiago hazi ziren urrian EAEn (%3,8 eta %6,9, hurrenez hurren). Joera orokor horren salbuespena izan ziren inflazioaren aurrean babes klausulak jaso dituzten hitzarmen kolektiboak, prezio igoerak gertatzekotan langileak konpentsatzen saiatzeko. Hala eta guztiz ere, hitzarmenen guztizkoan klausula horiek jaso dituztenak oraindik ez dira asko, azken hilabeteetan kopuruak gora egin badu ere.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,9	2,0	1,7	1,2	3,8
- Urtean zehar sinatutakoak	2,2	2,3	1,2	1,1	3,6
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,0	2,1	1,7	1,0	3,6
- Enpresako hitzarmenak	1,6	1,8	1,7	1,9	4,4

(*) 2022ko urria arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, pertsona bakoitzeko guztizko lan kostuek balio apalagoak erakutsi zituzten aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, aldi baterako enplegu erregulazioko espediente (ABEEE) baten eraginpean zeuden pertsona landunen egoera pixkanaka erregularizatu ondoren. Aitzitik, lan egindako ordu bakoitzeko kostuak nabarmen igo ziren, benetan lan egindako orduak ezarri baitzuten erregistrorik txikiena 2020. urtearen hasieratik, orduan hasi baitzen koronabirusari lotutako krisia.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
Lan kostu guztiak langileko	-1,1	4,9	8,9	4,5	3,4	2,1	1,5
- Soldata kostua guztira	-1,9	4,9	9,6	4,0	3,8	2,5	1,5
- Bestelako kostuak	1,1	4,8	7,3	5,9	2,2	0,8	1,4
Lan kostu guztiak orduko	5,9	-2,4	-9,0	-2,9	0,3	-0,5	-1,1
- Soldata kostua guztira	5,0	-2,4	-8,5	-3,4	0,7	0,0	-1,0
- Bestelako kostuak	8,4	-2,6	-10,4	-1,7	-0,9	-1,8	-1,2
Adostutako lan orduak	-0,4	1,5	1,4	1,3	1,4	-0,1	-1,0
Benetan lan egindako orduak	-6,8	7,2	19,8	7,5	3,0	2,5	2,6

Iturria: INE.

Arlo publikoa

Azaroa arte, zergen bidez bildutako diru sarrerek 15.779 milioi eurora iritsi ziren, hau da, aurreko urteko aldi berean jasotakoa baino %9,3 gehiago. Urte amaierarako hazkunde tasa neurritsuagoa izango dela aurreikusi da, %7,2, hain zuzen ere, urte amaierarako aurreikusi den barne eskariaren moteltzearen, egin gabe dauden aparteko itzulketa batzuen eta inflazioaren ondorio negatiboak arintzeko hainbat neurri onartzearen ondorioz. Hala eta guztiz ere, horrek ez du eragotziko Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ogasunek inoizko erregistrorik onena markatzea, 17.109 milioi euro inguru bilduko baitute aurten. Diru sarrera publikoen hazkunde nabarmen hori Ukrainako gerrak eragindako krisi energetikoaren esparruko inflazio maila handiekin lotuta dago.

Diru bilketaren kapituluaren araberako analisiak erakusten du zerga bilketaren bilakaera ona zuzeneko zergek (%9,4) eta zeharkako zergek (%9,3) erakutsi zuten hobekuntzaren emaitza izan zela. Lehen kapituluari dagokionez, eta PFEZetik hasita, zerga horrek igoera nabarmena lortu zuen (%6,6), lanaren atxikipenek azaroan ere erritmo handian hazten jarraitu baitzuten, enplegua sortzeari, soldaten igoerei eta, hain zuzen ere, igoera horiek dakartzaten tasa efektiboaren handitzeari esker.

PFEZak bezala, sozietateen gaineko zergak ere gehikuntza tasa oso handiak ezagutu zituen azarora arte (%27,0), batez ere enpresa handienei aplikatutako gutxieneko tasaren eta zerga horren taldeetan galerak konpentsatzeko denbora mugaren ondorioz. Horregatik guztiagatik, sozietateen gaineko zergaren kuota diferentzialak (gutzizkoaren %70 baino gehiago baita) aurreko aldietako tasak gainditu zituen. Era berean, zeharkako zergari dagokionez, BEZaren bilakaera nabarmendu behar da, zerga nagusien artean diru iturri nagusia bihurtu baitzen, urtez urte PFEZa diru bilketaren motor nagusi bihurtu ondoren. Aipatutako hazkundea gastuaren gorakadaren eta, batez ere, inflazio handiaren ondorioa izan zen, nahiz eta azken hilabeteetan inflazioa zertxobait moteldu den.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-azaroa)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2021	2022	% Ald. 22/21
PFEZ	5.680.860	6.055.239	6,6
Sozietateen gaineko zerga	1.154.867	1.466.532	27,0
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	58.593	104.460	78,3
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	161.348	136.151	-15,6
Ondarearen gaineko zerga	170.901	169.151	-1,0
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	27.498	28.835	4,9
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	23.191	450	-98,1
ZUZENKO ZERGAK GUZTIRA	7.277.259	7.960.818	9,4
BEZaren bertoko kudeaketa	5.402.706	6.170.047	14,2
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	161.661	161.165	-0,3
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	37.053	41.126	11,0
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	18.842	21.816	15,8
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.351.503	1.221.738	-9,6
Aseguru sarien gaineko zerga	91.886	99.860	8,7
Joko jardueren gaineko zergak	6.479	4.622	-28,7
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	3.175	3.686	16,1
Iraungitako zergak	-81	-1	98,3
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	7.073.224	7.729.606	9,3
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	86.017	88.811	3,2
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	14.436.500	15.779.235	9,3

Iturria: Foru aldundiak.

Azkenik, zerga bereziek ez zituzten zifra negatiboak alde batera utzi, batez ere energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren eteteak eraginda, zerga horren diru bilketa %72,7 jaistea ekarri baitzuen. Era berean, hidrokarburoen bidez bildutako diru kopuruak jaitziera oso neurritsuak izan zituzten, gasolioaren eta gasolinaren prezioek duela gutxi izan duten beherakadaren ondorioz.

Arlo finantzarioa

Udaren hasieran, banku zentralek diru politikak gogortzeko erritmoa moteldu zezaketela pentsatuta, arriskuaren gosea areagotu egin zen, burtsa merkatuek gora egin zutelako eta interes tasak erlaxatu egin zirelako. Baina, harez geroztik, diru agintariek inflazioaren aurka borrokatzeko konpromisoaren irmotasuna berretsi zuten, joera horiek aldatu egin ziren. Horiek horrela izanda, ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna berriro hedatu ziren merkatuetan, banku zentralek moneta politika gogortzeko prozesua areagotu zuten ahala. Aurreko guztiari urrian sortutako ekaitza gehitu behar izan zitzaion, Erresuma Batuan zerga pizgarrien egitasmo bat iragarri eta tentsio geopolitikoek bere horretan jarraitu ondoren. Horrek guztiak liberaren eta euroaren balio galera handia ekarri zuen, dollarrarekiko parekotasuna galdu baitzuen, baita burtsen beherakada handia ere. Ondoren, datu ekonomiko onek, espero baino hobeak izan baitziren, merkatuak egonkortzea eta galdutako eremuaren zati bat berreskuratzea ahalbidetu zuten.

Zehatzago adierazita, Erreserba Federalak (Fed) bere erreferentzia tasaren bi igoera gehiago onartu zituen azaroan eta abenduan, esku hartze tasa %4,25-%4,5eko tartean finkatu arte. Azken igoera horrekin, zazpi jasoaldi egin ditu urte bakarrean. Erakundeak uste du erritmoa gelditzeko eta moneta politikaren gogortzeak bere ondorioak nola hedatzen dituen ikusteko unea dela, nahiz eta komiteko kideek berek aurreikusten duten tasak %5,0tik gorakoak izango direla 2023an. Interes tasen igoerak esanguratsuak izan ziren, halaber, Europako Banku Zentralaren aldetik (EBZ), 75 oinarrizko puntu irailean eta 50 puntu gehiago abenduan, eta, ondorioz, %2,5ean kokatu zen esku hartze tasa, bai eta Ingalaterrako Bankuaren aldetik ere, 50 oinarrizko puntu igo baitziren irailean, azaroan eta abenduan, erreferentziazko tasa %3,5ean finkatu arte. EBZk, britainiarrak egin duen bezala, azpimarratu du interes tasek gora egiten jarraituko dutela, etengabeko erritmoan, inflazioa ezarritako %2,0ko helburura eramateko bere estrategiaren atal gisa.

Dinamika oso orokortu horien esparruan, salbuespen nabarmenenak, garatutako ekonomien artean, Japoniako Banku Zentrala izan zen. Banku horrek berretsi egin zuen bere moneta politikan joera ultra-egokitzailari eusteko asmoa, eta horrek areagotu egin zuen yenaren dollarrarekiko ahultasuneko joera. Gorabidean dauden ekonomien artean, berriz, Txinako Banku

Zentrala izan zen salbuespen nabarmenena, abuztuan bere interes tasa nagusiak oinarrizko 5 puntu eta 15 puntu artean murriztu baitzuten, eta orduetik bere diru politika aldatu gabe mantendu baitu.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2020	2021	2022					
			Uztail.	Abuzt.	Iraila	Urria	Azar.	Aben.
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku	0,00	0,00	0,5	0,5	1,25	1,25	2,0	2,5
Erreserba Federala	0,25-0,0	0,25-0,0	2,0-2,25	2,0-2,25	3,0-3,25	3,0-3,25	3,75-4,0	4,25-4,5
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,10	0,25	1,25	1,75	2,25	2,25	3,0	3,5
Txinako Banku Popular	3,85	3,80	3,70	3,65	3,65	3,65	3,65	3,65
Brasilgo Banku Zentr.	2,00	9,25	13,25	13,75	13,75	13,75	13,75	13,75
10 urteko zor publikoaren								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	63	77	111	120	118	108	102	109
Grezia	120	149	217	257	272	243	222	203
Erresuma Batua	77	115	103	111	107	137	122	111
Italia	110	136	233	235	240	217	194	213
AEB	149	168	182	160	169	192	176	127

Iturria: Espainiako Bankua.

Inflazio handiko eta banku zentralen gogortze azkarreko testuinguru horretan, 10 urterako bonu subiranoak, prezioekin alderantzizko harremana dutenak eta kapitalen merkatuak baino lehenago mugitzeko joera dutenak, jaitsi egin ziren, moneta politikaren mugimenduen aurreratu nahian, eta horrek bere errentagarritasunak handitu zituen.

Bonuen errendimenduak azkarrago igo ziren AEBetan, Erreserba Federalak inflazioa kontrolatzeko jarrera oldarkorragoa hartu zuelako. Zehazkiago adierazita, 10 urterako AEBetako Altxorraren bonuaren errentagarritasuna %4,2tik gorakoa izatera iritsi zen urriaren amaieran eta azaroaren hasieran, 2010etik lehen aldiz, eta 20 urtean izan duen hileko hazkunderik handiena ekarri zuen. Beste aldetik, Europako Banku Zentralaren politika murriztaileak ere gora eraman zuen bonu alemaniarren errentagarritasuna, eta, data berean, %2,4ko errentagarritasuna gainditu zuen, azken hamar urtekoan ikusi ez den maila baita. Abenduan, KPIaren igoera txikiagoek bonuen etekinak %3,45eraino erlaxatzea ekarri zuten AEBen kasuan, eta %2,4ra Alemaniaren kasuan. Espainiako zor publikoaren bilakaerari dagokionez, bere kotizazioa

%3,5era igo zen urrian, eta ondoren, azaroan, %3,0 ingurura arte jaitsi zen. Hala ere, EBZren mugimenduak eragin handiagoa izan zuen Espainiako zorrean, berriro ere gora egin baitzuen, eta 2022an %3,65eko errentagarritasun maximoarekin itxi zuen, urtea hasi zenean eman zuen %0,59ko errentagarritasunaren oso gainetik.

Alemaniarren errentagarritasunak izan zuen hazkunde handiak (urtearen hasieran etekin negatiboak izan zituen) ahalbidetu zuen Europako gainerako zor subiranoekiko diferentziala maila neurritsuan mantentzea eta, kasu batzuetan, Greziakoan adibidez, beherazko joera argia izatea. Zehatzago esanda, Greziako arrisku saria 203 puntura jaitsi zen, Italiakoa, berriz, 213 puntura, eta Espainiakoa, 102 puntura jaitsi ondoren, 109 puntura iritsi zen abenduaren erdialdean.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2020	2021	2022					
			Uztail.	Abuzt.	Iraila	Urria	Azar.	Aben.
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,141	1,184	1,018	1,013	0,990	0,983	1,020	1,059
Yena/euro	121,8	129,9	139,2	136,9	141,6	144,7	145,1	142,7
Libera esterlina/euro	0,889	0,860	0,850	0,845	0,875	0,871	0,869	0,87
Yena/dolarra	106,8	109,8	136,7	135,1	143,0	147,3	142,3	134,8
€ efektibo nomin.(%)	99,7	99,7	94,1	93,6	94,2	94,8	95,9	97,0
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	-15,5	7,9	-6,4	-9,5	-15,5	-8,7	-4,0	-5,6
Eurostoxx-50	-5,1	21,0	-13,7	-18,2	-22,8	-15,8	-7,8	-11,7
Dow Jones	7,2	18,7	-9,6	-13,3	-20,9	-9,9	-4,8	-8,8
Nikkei 225	16,0	4,9	-3,4	-2,4	-9,0	-4,2	-2,9	-9,4
Standard & Poors	16,3	26,9	-13,3	-17,0	-24,8	-18,8	-14,4	-19,4

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte.

Iturria: Espainiako Bankua.

Munduko burtsa indize nagusiei dagokienez, irailean beherakada handiak pairatu zituzten eta EuroStoxx 50 indizea %22,8 jaitsi zen, Alemaniako Dax indizeak %23,74ko galerak pilatu zituen, eta Ibex 35ek bere mailarik baxuena (-%16,7) jo zuen urriaren erdialdean. Harez geroztik, parke nagusiak suspertzen hasi ziren. Kontinente zaharreko burtsek banku zentralak tasen goraldiak leunduko zituztelako itxaropenean oinarritu zuten susperraldia. Enpresen emaitzen denboraldian ere laguntza aurkitu zuten, eta sektore batzuk izan ezik (teknologikoa, adibidez),

ez ziren analisten adostasunetik asko urrundu. Hala, azaroan indize nagusiek aurreko hilabeteetan izandako galeren zati bat berreskuratu zuten.

Hala eta guztiz ere, abenduan bizi zen interes tasen igoeren txanda berriak balizko atzeraldiaren mamua ekarri zuen berriro, inbertitzaileen artean urduritasuna eragin zuen eta burtsen gorakada eten zuen. Izan ere, egun bakar batean, abenduaren 14tik 15era, banku zentral nagusiek erreferentzia tasen igoera berriak iragarri zituztenean, burtsa adierazgarriek %1,7 eta %3,5 artean egin zuten behera, eta urriko gutxieneko mailetara hurbildu ziren berriro. Hain zuzen ere, abenduaren amaieran, Standard & Poors indizeak %19,4ko galerak pilatuak zituen, Eurostoxx indizeak %11,7koak eta Dax alemaniarrek %12,3koak. Londresko burtsak bakarrik lortu du balantze positiboa (%0,9). Ibex-35i dagokionez, Espainiako burtsak ere behera egin du urduritasunaren aurrean, eta urtea amaitu zenean %5,6ko galerak pilatuak zituen.

Dibisen merkatuari dagokionez, hegazkortasun handia izan zen urte amaierako ezaugarri nagusia. Irailean, Erreserba Federalaren (%3,25) eta EBZren (%1,25) arteko diferentzialaren hazkundeak dolarra gorantz bultzatu zuen, eta Italiako hauteskundeen emaitzak, alderdi ultrasestuindarra boterean jarri zutenak, euroa beherantz tentsionatu zuen. Horren guztiaren ondorioz, moneta bakarraren kotizazioa 0,95 dolarretik behera jaitsi zen euro bakoitzeko, azken 20 urteetako txikiena. Urrian, euroak dolarrarekiko zuen ahuleziak bere horretan jarraitu zuen, baina hilaren bigarren erdian arriskuak hartzeko gose handiagoa dolarraren ahultze batean islatu zen, euroarekin zuen trukean hilabetea parekotasunetik hurbil itxi baitzuen. Hala, irailaren 27ko minimoetatik abenduaren amaiera arte, euroak %11,5eko balioa irabazi du dolarraren aldean. Rally hori Erreserba Federalaren azken mezuek azaltzen dute merkatuan, ekonomiaren bilakaeraren aurrean tasen hurrengo igoeretan moderazio bat izateko joera izan baitute, eta horrek bide emango lioke euroari dolarraren aurrean galdutako eremuaren zati bat berreskuratzeko. Hala eta guztiz ere, aurtan, Europako dibisak %6,5eko balio galera izan du billete berdearen aldean, 1,13 dolarretan hasi baitzuen urtea.

Libera esterlinaren kasuan, erabaki politikoez (zergak murriztean eta zor publikoa handitzean oinarritutako programa, Liz Truss lehen ministroak aurkeztua) libra hondoratu zuten, eta horren dolarrarekiko kotizazioa 1980ko mailara jaitsi zen. Halaber, zor tituluek prezioan hain beherakada handiak izan zituzten, non pentsio funts pribatuen egonkortasunaren beldur izan ziren, eta marjinak estali behar izan zituzten beren aktiboen zorroa babesteko. Ingalaterrako Bankuak zor publikoa erosteko programa baten bidez egindako esku hartzeak, zenbateko mugarik gabe, merkatuak egonkortzea lortu zuen. Hala ere, liberak %5,6ko balio galera metatu du euroaren aldean, eta %12,1ekoa, berriz, dolarraren aldean.

Euriborra, bestalde, goranzko aldaketa handieneko urteetako bat ixtear dago. Izan ere, Espainiako hipoteka aldakor gehienek erreferentziazat hartzen duten indizea -%0,502an hasi



zen urtea, eta etengabe egin du gora, azaroan %2,8aren inguruan egonkortu arte. Hilabete horretan Euriborra interes tasak baino ia puntu bat gorago egoteak, adituek EBZk igoeren erritmoa leunduko zuela espekulatzeak eta inflazioak behera egin izanak goranzko zikloa gelditzea ekarri zuen. Hala ere, EBZk abenduan onartu zuen azken igoerak goranzko joera berpiztu zuen, eta Euriborra %3,018an kokatu zen 2022. urte amaieran.

Horrek esan nahiko du adierazle hori 3,5 puntu baino gehiago handitu dela urte bakar batean, eta indize hori erreferentziatzat hartzen duten hipoteken kasuan, euroa sortu zenetik inoiz izan den garestitzerik handienarekin amaitu zuela abendua. Banku iturrien arabera, igoera horrek hipoteken kostuetan izango duen eragina 15.000 milioi euro ingurukoa izango da hipoteka merkatu osoan.

Etxebizitzen hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Hipoteken merkatuari dagokionez, aurtengo bigarren hiruhilekoan lortutako erregistro altuen ondoren, uztailean hipoteken sinadura nabarmen moteldu zen (-%25,9ko hilabete arteko tasan), eta, ondoren, abuztuan eta irailean, goranzko bideari ekin zitzaion berriro. Hala eta guztiz ere, erreferentziatzko aldi sinatutako 5.672 hipotekak 2011ko hasieratik izan den hirugarren erregistrorik onena izaten jarraitzen dute, eta %3,2ko urte arteko hazkundera ekarri zuten. Azken datuek, urrikoek, higiezinaren sektorearen sendotasuna berresten dute. Zehazki, 2.008 hipoteka sinatu ziren, aurreko urteko hilabete berean baino %33,2 gehiago, eta 2010etik izandako urririk onena izan zen. Higiezinaren merkatuaren tonua oraindik ere ona denez, eta, beste aldetik, azken hilabeteetan etxebizitzaren prezioa igo egin denez, hipoteka horietan mailegatutako zenbateko osoa urteko hirugarren hiruhilekotik 1.228,3 milioi eurora igo da uztaile eta urria bitartean.

Euriborraren gorakadak, beste aldetik, Espainiako bankuen estrategia aldatzea ekarri du berekin, eta atzean utzi du tasa finkoko hipotekak erabilienak ziren aro luzea. Bankuek askoz etekin handiagoa lortzea espero dute ematen dituzten hipoteka aldakorren bidez, indize hori diferentziala izeneko ehuneko finko bati gehitzean kalkulatzen baita haien interesa. Mozkin hori are gehiago handitzeko, erakunde gehienek produktu horien kontratazioa sustatzea erabaki dute, bai diferentzialak murriztuz, bai hipoteka finkoak garestituz, erakargarrtasun txikiagoa izan dezaten. Bankuek diseinatu duten kanpaina eragina izaten hasi da. Izan ere, apirilean hipoteken %75,4 tasa finkoan formalizatu ziren, eta urrian modalitate hori %66,7a murriztu da.

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2020	2021	2021		2022			Aldea 2008-IV eta 2022-III	
			IV	I	II	III	III	Milioi €	Tasa
Kredituak	2,4	0,1	0,1	0,3	0,9	1,9	71.717	-15.703	-18,0
Arlo publikoa	7,0	15,8	15,8	11,7	7,6	0,1	9.780	7.751	382,1
Arlo pribatua	1,8	-1,9	-1,9	-1,3	-0,1	2,2	61.937	-23.454	-27,5
Gordailuak	5,7	4,7	4,7	5,6	3,3	2,6	97.194	20.851	27,3
Arlo publikoa	27,1	53,1	53,1	50,2	23,4	10,9	8.995	3.262	56,9
Arlo pribatua	4,4	1,2	1,2	2,6	1,7	1,8	88.199	17.589	24,9
Agerikoak	9,0	5,1	5,1	6,3	4,7	4,1	81.542	54.555	202,1
Eperakoak	-20,1	-26,6	-26,6	-26,9	-25,9	-24,9	6.657	-36.966	-84,7

Iturria: Espainiako Bankua.

Aurreko datu horien ildotik, Espainiako Bankuak bankuen maileguei buruz argitaratu dituen azken inkestaren arabera, mailegu kategoria guztiei aplikatutako emate irizpideak urteko hirugarren hiruhilekoan gogortu baziren ere, kredituen eskaria hazi egin zen. Enpresei emandako banku kredituak oso sendo jarraitu zuen, ekoizpenaren kostu handiak finantzatu eta izakinak metatu behar dituztelako. Aldi berean, familiei emandako maileguek ere gora egin zuten, baina azken horien hazkunde erritmoa moteldu egin zen berriro, emakida irizpideak gogortu egin direlako eta eskariak behera egin duelako interes tasen igoeraren eta kontsumitzaileen konfiantza maila baxuaren testuinguruan. Zehatzago adierazita, guztizko kredituak %1,9 handitu ziren, bereziki kreditu pribatuek (%2,2) eta, neurri txikiagoan, publikoek (%0,1) bultzatuta.

Azkenik, gordailuek gora egin dute etengabe azken urteotan, nahiz eta aldian aldiko beherakadaren bat izan duten, Covidaren ondorioz aurrezteko joera handiagoaren isla, urteko bigarren hiruhilekoan 98.424 milioi euro baino gehiago lortu arte, aurrekaririk gabeko maila delarik. Hala ere, aurtengo hirugarren hiruhilekoan joera hori hautsi egin zen eta 1.230 milioi euroren gordailuak atera ziren. Zehazki, ia 1.477 milioi euro atera ziren gordailu pribatuetatik, eta partzialki konpentsatu ziren, 246 milioiko gehikuntzarekin gordailu publikoetan. Erosketa saskiaren prezio garestiak eta ekoizpenaren kostu altuek aurrezkietatik dirua ateratzera ezinbestekoa egin dute, eta horrek murriztu egin ditu gordailu pribatuak, eta, ondorioz, baita gordailu guztien kopurua ere. Hala eta guztiz ere, azken horiek %2,6 hazi ziren 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Aurreikuspenak

Munduko ekonomiari buruz argitaratu diren aurreikuspenek hazkundearen moteltzeak markatzen jarraitzen dute, gero eta iraunkorragoa dirudien inflazio handiaren ondorioz. Prezioak tentsio egoera batetik zetozen, Covid osteko jarduera ekonomikoa berriro ireki eta hornidura kate globaletan arazoak izan ondoren, baina Errusiak Ukraina inbaditu izana da 70eko hamarkadan gertatu zen petrolioarenaz geroztik izan den energia krisirik handiena eragin duena. Ziurgabetasun handiaren ondorioa da agertoki hori, eta arriskuek hazkunde ekonomikoa beherantz bultza dezakete gero eta gehiago. ELGAko herrialde askotan, langabezia maila hainbat hamarkadatarako minimoetan dago, eta horrek soldata nominalen hazkundera bultzatzen duela dirudi. Hala ere, iguera horiek ez dira inflazioaren erritmora iristen, eta erosteko ahalmenaren higadura nabarmenduz doa.

Azaroko txostenean, ELGAk hamarren bat soilik berrikusi zuen munduko ekonomiaren hazkundera 2022rako, %3,1ean utziz, eta %2,2ko hazkunde ahulari eutsi zion 2023rako, eta, ordea, hobekuntza txiki bat aurreikusten du, %2,7raino, 2024rako. Zehazki, Alemania eta Erresuma Batua bezalako herrialdeek 2023rako hazkunde tasa negatiboekin ixtea espero da, eta Frantzian eta AEBetan, hauek ere oso garrantzitsuak baitira, %0,5 inguru izatea.

AEBetan, interes tasek bizi duten iguera azkarrak eta soldata errealean jaitsierak inflazioaren gaineko presioa murriztu dutela ematen du. Aurreikuspenen arabera, 2024rako prezioen iguera Erreserba Federalak ezarri zuen %2ko inflazio helburura hurbilduko da, eta urteko batez bestekoan %2,6 ingurukoa izango da. 2022rako hazkundera %1,8koa izango dela aurreikusten da, aurreko txosteneko aurreikuspenarekin alderatuta hiru hamarren hobetuz. Hala ere, eskariaren

ahultzeak hazkundera %0,5 eta %1,0ra mugatuko du 2023 eta 2024 urteetarako, hurrenez hurren.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG				Kontsumoko prezioak			
	2021	2022	2023	2024	2021	2022	2023	2024
Munduko ekonomia	5,9	3,1	2,2	2,7	--	--	--	--
AEB	5,6	1,8	0,5	1,0	4,0	6,2	3,5	2,6
Eurogunea	5,3	3,3	0,5	1,4	2,6	8,3	6,8	3,4
Alemania	2,6	1,8	-0,3	1,5	3,2	8,5	8,0	3,3
Frantzia	6,8	2,6	0,6	1,2	2,1	5,9	5,7	2,7
Italia	6,7	3,7	0,2	1,0	1,9	8,1	4,9	3,0
Espainia	5,5	4,7	1,3	1,7	3,0	8,6	4,8	4,8
Erresuma Batua	7,5	4,4	-0,4	0,2	2,6	8,9	6,6	3,3
Kanada	4,5	3,2	1,0	1,3	3,4	6,8	4,1	2,4
Japonia	1,6	1,6	1,8	0,9	-0,2	2,3	2,0	1,7
Txina	8,1	3,3	4,6	4,1	0,8	2,0	2,2	2,0
India	8,7	6,6	5,7	6,9	5,5	6,8	5,0	4,3
Brasil	4,9	2,8	1,2	1,4	8,3	8,9	4,2	4,5

Iturria: ELGA (2022ko azaroa).

Europako hazkundera gelditu egin da 2022. urteak aurrera egin ahala. Hala ELGak nola Europako Banku Zentralak bat egin dute 2023an euroaren eremu osorako %0,5eko hazkundera tasa aurreikusten dutenean. Horrek esan nahi du Ukrainan dagoen gatazkarekiko esposizio handia duten herrialdeak, Alemania kasu, 2023ko neguan atzeraldi teknikoan sartzeko arriskua dagoela. Bere azken txostenean, abenduan argitaratua, EBZk %6,3ko inflazio tasa aurreikusten du eurogunearentzat 2023rako, %3,4koa, berriz, 2024rako eta %2,3koa, azkenik, 2025erako. Irailean, berriz, %2,3ko inflazio maila hori 2024rako lortuko zela aurreikusten zuen. Aurreikuspen horiek inplizituki suposatzen zuten 2023an interes tasen gorakada leuntzen hasi zitekeela eta 2024ko urtearen bigarren erdian inflazioaren helburua lortuko zela, moneta politikan joera aldaketa gerta dadin.. Hala eta guztiz ere, inflazioa, energia eta elikagaiak alde batera utzita, %4,2ra igoko da 2023an, 2022ko batez bestekoa baino hiru hamarren gehiago, eta ez da %2,4ra jaitsiko 2025era arte.

Eurogunea osatzen duten herrialdeetako prezioen hazkundera mailaren intentsitateen heterogeneotasuna esanguratsua da, eta moneta politikaren inguruko eztabaidaren bilakaera

baldintzatu dezake. ELGak 2023an %8,0ko inflazio tasa espero du Alemaniarentzat, baina Italian eta Espainian, esaterako, tasa hori %4,9koa eta %4,8koa izatea aurreikusten da 2023an, eta Frantzian, adibidez, 2024an %2,7ra jaitsi daitekeela. Horregatik, interes tasen igoerak ekarriko dituen ondorio mikro eta makroekonomikoez gain, euroaren eremuko herrialdeen zorpetze maila ere desberdina dela aipatu behar da, interes tasen igoerak herrialde bakoitzeko zor subiranoa birfinantzatzeko eragiketetan ordaindu beharko dituzten interesei neurri batean edo bestean eragingo diela islatzeko.

EBZk abenduan interes-tasak %2,5era igotzeko erabakia hartu arren, 2023 eta 2024 urteetarako aurreikusten den inflazioak espero diren interes tasa errealak nabarmen negatiboak izaten jarraituko dute, eta hedapen egoera gisa hartu behar da, nahiz eta hedatzeko bultzada hori gero eta txikiagoa izan. Horregatik, inflazioaren ibilbidea ezarritako helburuarekin lerrokatze aldera, hurrengo bileretan EBZk interes tasak igotzen jarraituko duela eta inflazioa moteldu ahala igoeren erritmoa arinduko duela aurreikusten da. Interes tasen igoera horri *quantitative tightening* prozesuaren hasiera gehitu beharko zaio, alderantzizko efektuekin eta, beharbada, *quantitative easing*-arekiko asimetriko samarrekin, aktiboak erosteko programan (APP) eskuratutako baloreen muga egunarekin. Bigarren hiruhilekoaren amaierara arte, balore zorroaren jaitsiera erritmoa hilean 15.000 milioikoa izatea adostu da.

Oinarrizko agertokien hazkunde eta inflazio estimazioekiko egon daitezkeen balizko aldaketak, funtsean, beheranzko arriskuak dira. Nazioarteko erakunde nagusien aurreikuspenei buruzko txostenetan Ukrainako gerrak aurrera egin ahala, energia hornikuntzaren alorrean shock gehigarriren bat gertatuko dela irudikatzen duten agertokiak daude modelizatuta. ELGak Europarentzat planteatzen du gas horniduraren zailtasunak, dela gas biltegiatze faltagatik, dela prezioen igoeragatik, arazo izan daitezkeela hurrengo bi neguetan. Hala, aurreikusten du gas horniduraren mozketak luze batek eragin negatiboa izan dezakeela Europako BPGaren hazkundera, 1,4 puntukoa 2023an eta 0,8 puntukoa 2024an. Bestalde, EBZk antzeko ezaugarriak dituen ariketa batean aurreikusten du euroguneko hazkundera eragina 1,1 puntukoa izan daitekeela 2023an eta 1,7koa, berriz, 2024an.

Espainiako ekonomiari dagokionez, 2022ko laugarren hiruhilekoko datuak jakin gabe, badirudi nolabaiteko adostasuna dagoela urteko hazkundera %4,5 ingurukoa izango dela. Zifra hori estimatzen dute bai Cerepredek bai Funcasek, Espainiako Bankuak kalkulaturako %4,6tik eta ELGak kalkulaturako %4,7tik apur bat txikiagoa delarik.

Bestalde, 2023ko BPGaren hazkunderaren beheranzko berrikuspena orokorra izan da. ELGak bi hamarren jaitsi du 2023ko aurreikuspena, %1,3ra, eta 2024rako, berriz, ekoizpena %1,7 handitzea aurreikusi du. Cereprede ere hazkunde tasa jaitsiko dela aurreikusten du, eta %1,5ekoa izango dela 2023an, hau da, aurreko zenbatespenarekin alderatuta ehuneko puntu erdi bateko

berrikuspena egin du beherantz. Prezioen gorakada handiak kontsumo pribatuak izango duen hazkundearen aurreikuspenak murrizten ditu. Lehenago ere adierazi den bezala, ekonomian mota askotako arriskuak egoteak nolabaiteko aniztasuna sortzen du zenbatespenak egiteko orduan. Lehen aipatutako aurreikuspenekin kontrastean, Funcasen aurreikuspen panelak %0,7ra murriztu du Espainiako ekonomiaren hazkundea, eta Consensus Forecast panelaren batez bestekoa %0,9an geratu da.

ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2022ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2022	2023				2023
	IV		I	II	III	IV	
BPG	0,9	4,5	1,6	0,6	1,3	2,6	1,5
Kontsumo pribatua	1,1	2,0	2,2	1,5	1,1	1,9	1,7
Kontsumo publikoa	0,0	-1,7	0,6	1,8	2,2	2,3	1,7
Kapital eraketa gordina	7,0	5,4	4,2	2,3	2,5	2,8	2,9
- Taldeko inbertsioa	7,9	6,5	-0,9	3,1	3,4	4,9	2,6
- Landatutako aktiboen inbertsioa	2,1	5,6	3,6	4,4	4,2	4,5	4,2
- Eraikuntzako inbertsioa	7,1	4,3	8,3	1,8	1,9	1,5	3,3
Barne-eskaria	-0,8	4,6	1,6	1,4	1,1	2,6	1,7
Esportazioak	12,9	18,3	7,7	3,2	2,6	2,2	3,9
Inportazioak	8,9	9,9	8,2	5,6	2,0	1,9	4,4

Iturria: Ceprede.